

BILBOKO AUZOAK EROSKETAK EGITEKO



Bilboko auzoak erosketak egiteko

Denda bereziak, mota guztietako estiloak, gastronomia, delicatessen, bertoko produktuak, artisautza...

Denda bereziak, mota guztietako estiloak, gastronomia, delicatessen, bertoko produktuak, artisautza... Aukera pilo erosketak egiteko hiriko hainbat tokitan. Arima handiko dendak, harrituko zaituzte!

ERDIALDEAN

KALE NAGUSIA / ERCILLA / ELCANO. Marka ospetsuak denda paregabeekin.



Dock. C/ Gran Vía 61.

Hiriko kale nagusiak dira hauek, tarte batzuetan oinezkoentzako gun

bihurtuta. Hemen marka ospetsuak zein denoi gustatzen zaizkigun denda berezi eta paregabeak aurki ditzakezu.

DOCK

gisa, Kale Nagusian kokatuta dagoen 30 urtetik gorako erreferentziazko gizon moda-denda. 250 metro karratu baino gehiagotan Moncler, Stone Islands edo Henry Cottons bezalako markak aurki ditzakezu, besteak beste.

Edo

Egay lentzeria

, oso gertu, Ercilla kalean. Tradizio handiko denda txikitxo bat, 60 urteko esperientziarekin eta barruko arropen kalitate hoberena dute. Hauek biak Europako kale nagusietan aurki ditzakegun markekin bateratzen diren bi adibide besterik ez dira. Bestalde, zure ibilbidean adi ibili eta ez ahaztu burua altxatzea Bilboko Zabalguneko arkitektura miresgarria ikusteko.

COLÓN DE LARREATEGUI / RODRÍGUEZ ARIAS / MÁXIMO AGUIRRE. Azken joerak eta gourmet dendak

Moda eta gastronomia bateratzen dira hiru kale hauetan, Kale Nagusiarekiko paralelo. Merkataritza gune honetan, moda gustuko dutenek, eta batez ere, mokofinek zorientasuna topatuko dute. Azken joerak ezagutzeko leku ezin hobeak daude, hala nola, izen handiko tokiko diseinatzaileen arropa dendak (**Mercedes de Miguel** edo **Loreak Mendan**), edota **Foxter** -en zapata-denda ikaragarria.



Foxter. C/ Diputación 2.

Gainera, gourmet produktuak dastatu nahi badituzu, gune honetan ahosabaiak asetzeko hainbat elikagai-saltoki daude. Ez galdu **Delicatessen Lopez Oleaga**, ardo eta likoreetan espezializatua; edo **La Oka**, gourmet janaria, eta lehen mailako haragia eta txarkuteria dituen. Euren gastro tabernan, halaber, aperitiboa hartu eta bere espezialitateak dastatu ditzakezu.

Eta Bilboko pintxo famatuak probatu nahi badituzu, ondo-ondoan, hain zuzen, Ledesma kalean, taberna eta jatetxe ugariaren artean aukera dezakezu.

INDAUTXU PLAZA / CAMPUZANO PLAZA. Merkataritza espezializatua



Eurosport. C/ Estraunza 2.

Elkarri lotutako bi plaza hauetan espezializazio handiko saltokien eskaintza zabala dago, hala nola, kirolarena. Bertan, **Eurosport** dugu, eski, golf, padel, snow, skate eta beste hainbat produktutan erreferenteak, eta moda urbanoarekin konbinatuta espazio handi batean. Baita **Errekamendi** ere, mendiko zaleentzako arropa eta oinetakoak.

Shopping egun oso baten ondoren merezitako atsedena hartu nahi baduzu, zona honetan dauden edozein tabernatan egin dezakezu, guztiak giro onarekin. Ibilbidean zehar, Casilda parkera joan zaitezke ere han baitaude Arte Ederren Museoa eta Bilboko arte-galeriaren bat.

ALDE ZAHARRA

CORREO / BIDEBARRIETA eta JARDINES / VIKTOR / KAPELAGILE / LOTERIA bidegurutzeak. Sekulako merkataritza gunek irekia

Bilboko gunek historikoa, Zazpi Kaleak (jatorrizkoak) bezala ere ezaguna, hiriko bazter ezagunetakoa da.

Kaleen arteko bidegurutzeak, 40 inguru, bertatik galtzeko eta disfrutatzeko. Leku jendetsu eta bisitatuenetako bat da, eta hurbileko merkataritzaren gauzarik onenak aurki ditzakezu, hala nola, tokiko diseinatzaileen modadendak: besteak beste, **Serie B**, moda urbanoa, garaikidea, funtzionala eta

jasangarria duena, edo **SKFK**, gure ingurunearen artean eta naturan inspiratutako euskal marka etiko eta jasangarria.

Astirik baduzu, Erriberako Merkatua, bitxi arkitektoniko zoragarria, edo Euskal Museoa bisitatzea gomendatzen dizugu. Euskal Herriko bizimodu tradizionalak ezagutzeko aukera izango duzu han, eta, gero, Areatzatik paseotxo bat eman dezakezu, Itsasadarraren ertzetik.



Serie B. C/ Lotería 2.

BILBO ZAHARRA

MAIATZAREN BIKO KALEA / ARETXAGA / MARTZANAKO KAIA. Itsasadarrari begira dagoen auzo kosmopolita



Giro aparta, bohemioa eta kosmopolita arnasten da hemen. Auzo xarmagarria, haren nortasun berezia nabarmentzen duten dendekin. Zerbait desberdina aurkituko duzu beti, ideia abangoardistak eta transgresoreak.

Itsasadarrera begira eta Zazpi Kaleen aurrean dauden kaleetan detaileren bat erosteko aukera anitz izango dituzu: diseinatzaile gazteen dendak, artisau-produktuak, liburu, moda, oinetako edo osagarri bereziak, eskuz egindako

bitxiak, arte-lokalak... Gainera, sormenezko edo egile sukaldaritza nabarmentzen da hemen ere, kafetegi, taberna eta jatetxe bereziekin. Eta itsasadarrari begira pintxo gozo edo garagardo batez gozatzeko aukera ahaztu gabe. Bista ezin hobeak. Zalantzarik gabe, Bilbo Zaharra modan dago!



Ganboa Jewellery. C/ Aretxaga 5.